

## TXULETINO

## IÑAKI EGUREN ETXABEGUREN

**Txuleta**, izan liteke Astigarraga alde honetan sagardotegi garaian kiloka ez baino, kilometroka jaten den saihets aldeko haragi zati hori. Baita azterketa baterako ikasteko alferrez, zerbait badakigula disimulatzen laguntzen duen ezkutuko paper txiki hori ere. Edo izan liteke guk umetan esaten genuen hura: larruzko kazadora beltzarekin begiratu hutsez mehatxatzen gintuen hamasei bat urteko gizon txulo "haundi" uste hura. Txuletinoa ordea, ez da ez haragi, ez paper, ez madrileño, beste klase bat da.

Zuberoan bereziki maskaradetan egiten dituzten dantza horiek Bilbo, Donostia nahiz Iruñeko dantza taldeak dantzatzen hasi zirenean ez zen nonbait, hauetan, euskaraz hitz egiteko ohitura handiegirik, eta "Zuberoako dantza" edo "dantza zuberotarra" (behartu samarra hau ere) esan beharrean "suletino" esaten zieten. Gerora ordea, euskaldundu omen ziren zerbait ere, bazter horiek, eta bakarren batzuei otu zitzairen, euskal dantzak izaki, euskaratzerik bazegoela hauen izena. Eragiketa erraza da: "suletino" gazteleraz esana bada, euskaraz "xuletino". Eta lasai asko.

Horrek gogora dakarkit orain dozenatxo bat urte dantza taldearekin Argentinara joan eta, Bariloche, munduaren beste muturrean, aiton-amona edo berraiton-amonaren bat euskalduna izan zuten haiek

ongi etorria egiteko jarri ziguten kartela: "baskos" zioen, euskaraz idatzi zutelakoan. Haien asmoa ona ez, hobea zen, eta ahalegina eskertzekoa inondik ere, Patagonian ez baitute motiborik euskaraz jakiteko, eta gurekin gogoratzea nahikoa egiten dute. Baina Azpeitia edo Durangoko dantzari batek, nahiz Hernani edo Lesakako txistulari batek, Bizkaiko dantzak esateko "bizkaino" euskaratzen duenean, edo uztai txiki dantza egin beharrean "gipuzkoano" dantzatu edo jotzen duenean, asmoa beste bat da. Horrek badu larruzko kazadora beltz eta mehatxuzko begiratutik zerbait.

Eta zenbat halako. Niri gogorrenetakoa egiten zaidan bat, arrantzaleena da. Doinua Azkuek "Tilili eta talala" izenez dakar bere kantutegian, Hazparne, Baztan eta Bidarrain jasoa, eta Bidasoaz honantz aldeko txistulariok Isidro Ansorenak zekarren "Kaskarot" izenez ezagutu dugu ("kaskarots", bistan da, "kaskarot" hitzaren deformazioa da, Lapurdiko kaskarotek inaute giroan dabilzala hots kaskarrik ateratzen badute ez baitzaio zor hauen musika edo dantza-ri; euskaldun-euskalduna dugun zurruta eta builari gehienez ere). Horrek berak salatzen digu Lapurdi

inguruko doinua dela (lehenago Irlandatik etorria ez bada, John Wayne *The Quiet Man* filmean ikusi duen edonork pentsatuko lukeenez). Koreografia berriz, gerraurrean Saski-naskikoek egin omen zuten, doinu hori hartuta, eta gaitzat sardin-saltzaileak. "Sardineras" izenez hedatu zen bada, bizkor asko, koreografia hura. Gero etorri da euskaratu beharra. "Xardinerak" eta, maitekorrago, "xardi" bera ere entzuna nago ni honi deitzeko, baina indarrean jarri denak euskaldunari min gehiago ematen dio ia, ez belarrian bakarrik, baita garunean ere: gaztelerazko "sardinera" euskaratu nahi eta, nola esan horiei? Bada "arrantzale" deitzea okurritu. Arrantzalea eta sardin-saltzailea gauza bera bailiran. Denak sare berean (edo xesto berean nahiago bada). Eta bueltak ematen hasita, biribirjinak baino gehiago eman litezke berritro gazteleraz esan nahi eta sardin-saltzaileak "pescadoras" egiten baditugu. Utzia behar du pertsonak.

Lotsagabea eta axolagabea, aldamean edukitzeko tankeratsiak dira: biak txarrak. Halatsu erdaraz ere, esan ohi da ezjakina harroa izaten dela. Euskaraz esan genezake orduan, jakin nahi eza txuloa dela. Txuletinoa.



## XIRIA PASA

## NI TTUNTTUNEROA NAIZ

## PATXI LABORDA

**Ni ttuntuneroa naiz**, danbolintero nahi baduzue. Ez naiz txistuaren historian aditua, eta ez ditut fermuki arakatu txistua izan denaren aztarnak. Ez naiz, beraz, txistua izan zenaren nostalgian bizi, eta ulertzen dut garai bakoitzak eman duela berea, eta txistuak izan zena ez du zertan izanik, edo bai.

Ni Ttuntuneroa naiz, teknikoki eskasa, hori bai. Agian horregatik ez naute kezkatzen txistuaren etorkizunak ekar ditzaken afinazio, sonoridade, eta esparru berriek. Ez ditut bide berriak asmatzen agian oinen azpian ditudan ez ditudalako ibili.

Baina ttuntuneroa naiz, egunero dantzarako jotzen duen ttuntuneroa, eta agian horregatik nire inguruan jendea dantzan ari delarik, nik markatutako erritmoa eta doinua jarraituz, bizirik sentitzen naiz: haiekin nago jotzen, haiekin nago dantzan.

Kezkatzen ez nauen iragan horrek erakutsi zidan txistua garatu zela batez ere, dantzarako tresna moduan, eta dantzarako joaz, behetik gora, danboriletik hasita, eta haren gainean txistuaren

doinuaz gozatuz, zaila izanen duzue topatzea txistua baino osoagoa den musika tresna bat.

Kezkatzen ez nauen etorkizunaz solas eginez, txistuak beti topatuko du dantzan aterpea, elkar maite duten bi maitaleak balira moduan. Baina maitaleak elkar zaindu ere egin behar dira, ez dira izan direnarengatik bizi. Konplizitate hori elikatu eta azpimarratzen badugu, bide oparoa dugu aitzinean.

Dantzaria naizelako, kezkatzen ez nauen orainaz aritu nahi dut. Ez dakizue zer den zurekin komunikatzen den danbolintero batekin dantzatzea, une horretan bakarrik ematen den magia berezi bat sortzen ari zaretela sentitzea: bera astiro, ni astiro, ni xamur, bera xamur, ni gora, bera gora, bera indartsu, ni indartsu... musika eta dantzaren magian bete betean murgildurik, modu soilean, bai, baina musika ugari.

Magia hori sortzen dutenak amankomunean asko duten bi pertsona dira. Txistuaren historia eta etorkizuna. Finean, txistularien historia eta ametsak direlako, eta txistulari horiek plazagizonak edo plazandreak izan daitezkeela konturatzen badira, ez da kezka gehiagorik izango, bere baitan dagoen musikaren magiak bere garaia beti garaitzen duelako. Eta hala bazan, hala ez bazan, sar nazatela kalabazan, eta atera hurren xiria Aitor, Iruñeko lagun eta kidearen luman.

